

Noaia!!!

www.noaia.com



Santuenean, jaia nagusi



Euxebio Txapartegi harakina urte luzez

“Gustura aritu naiz
eta gustura utzi dut”



ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASEERRA HERRIA
BIZIRIK

Erraustegia eta energia

Espainiar estatuan urtean sortzen diren hiri hondakinen 14.424.430 tona birziklatuko balira, erraustuz baino energia gehiago sortuko litzateke. Hortaz, erraustu ordez birziklatuko balitz, ikatza darabilten 4 zentral termiko itxiko liriateke, Espainian: Carboneras (Almeria), Los barrios (Cadiz) eta Soto de Ribera (Asturias); Gipuzkoan: Pasaia. Zentral hauek dira energi iturri kutsagarrienak.

Osasun-tekniko batzordea

Iturria: Espainiar estatuko sustapen ministeritzako datuak.



www.behetik.com

Eskailerak igotzea... ez da oztopo!

-plataformak -igogailu bereziak -aulki bereziak...



behetik

Añorga-Itxiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888

TELEFONO INKESTA USURBILEN



Astelehenetik aurrera...

Atez ateko bilketa hobetu asmoz

Telefono deia jasoko duzu
zure iritzia eman dezazun



Usurbilgo Udala

Usurbil
osasuna atez ate

Albistea iruditan !!

Donostiako Bandera Usurbilen

Bost segundoko aldea ez da handia. Are gutxiago, Donostiako Bandera jokoan dagoenean. Baina Kaikukoak indartsu aritu ziren Kontxako bigarren igandean, eta aldea mantentzeaz gain, handitu ere dezente handitu zuten. Bitan garaipenaren atarian geratu bada ere, azkenean iritsi zaio garaipenaz gozatzeko garaia Iñaki Errasti Aginagako arraunlariari. Donostiako Bandera irabazi eta gero, Kaikukoak Aginaga sagardotegian ospatu zuten. Donostiatik Aginagara bidean baina, Usurbilen gelditu ziren Kaikukoak. Kale Nagusian, Zendoia taberna parean, Iñaki Errastiren lagunak zeuden zain. Pankarta eta guzti. Banderarekin jaitsi zen Iñaki. Ongi etorri honen segidan, Aginaga sagardotegira abiatu ziren Kaikukoak. Ospakizunek Sestaon izan zuten jarraipena. Bertan elkartu ziren agintariekin eta euren zaletuekin.



KAIKUREN AUTOBUSA USURBILLEN GERATU ZEN. LAGUNEZ INGURATUTA IÑAKI ERRASTI, BANDERA ESKUARTEAN DUELA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com
 Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com
 Aldizkari koordinatoria: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
 Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
 Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com
 Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.
 Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.
 Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.
 Tirada: 2.600 ale
 Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

- AISIA GIDA BERRITUA ARGITARATU DA **5. OR.**
- OSTIRAL HONETAN, MANIFESTAZIOA **8. OR.**
- MARTXELEN OMENEZKO BERTSOAK **9. OR.**
- “ZUREA BAI ZORTEA!” KANPAINA MARTXAN **10. OR.**



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
 943 360 466

piñtxoak
 ogitartekoak
 plater konbinatuak

TABERNA

Solariuma **L'ORÉAL**
 PROFESSIONNEL

Iñoli Lizarralde

• Ilusapaindegia • Estetika Zentroa

Zubiaurrenea, 5-B ☎943 361 971



ARITZ GORRITI

Beldurra, gortina lanetan

Ez da ikusten, ikusezina da, baina sentitu edo sentia-
razi liteke. Bozka mordoa lortu nahian edota justifi-
ka ezin litezkeen hainbat ekintza, proiektu edo asmoak jus-
tifikagarri bilakatzeko hainbat alderdi politikok hautatu
izan duen estrategia da, izua zabaltzearena. Neurri jazar-
tzaileak, zentzurik eta neurririk gabeko inbasioak...
Fikziozko beldurrak, film onenen gidoia gainditu izan du
askotan, eguneroko errealtatean jakina. Beldurra, beneta-
ko bitartekoan bihurtu da, benetako arma kaltegarrian,
modu horretan denetarikoa irabaziak eskuratzeko bidea
ikusituz dutenentzat.

Oraingoan ere, lizentziarik gabe erabiltzen ari dira gaine-
ra. Udazken honetako zorigaitzoko hainbat gai "izarretan",
letradun gripearekin esate baterako. Ez omen da hilgarria,
ezta ohikoa bezain kaltegarria ere. Baina zendutako herri-
tar bakoitza noiz eta non hil den dakigu. Ohiko gripeare-
kin hiltzen direnen arrastorik izaten ez dugunean. Ez ote
dago atzean, mota desberdinetako interesik? Irabazirik
eskuratu nahi duen enpresarik, edota beste hainbat gai
garrantzitsu ezkutuan uzteko interes politikorik?

Gripe honi aurre egiteko botika ekoizle batzuen irabazi

gosea agerian uzten duten e-mail bat baino gehiago hortik
zehar dabilta, sareen sarean. Irabazi gosea, oraingoan, gure
osasunaren bizkar. Egia edo gezurra den ez dakit nik, baina
antza ez dira edonor, gripe berriaren aurkako erremedioa
euren eskura dutenak.

Kontuz ibili beharra dugu gure osasunarekin beraz, gri-
peaz kutsatu ordez gripea izateko beldurrak ez gaitzala
"jan". Uda honetan ez da beste konturik izan. Osasunarekin
adi ibili behar, jaietan edota kalean bezala. Beldurtu gabe,
baina era berean adi. Kontuz janzkerarekin, adi non zabil-
tzan, errifarik ez erosi, saltzea burutik pasa ere
ez. Kontuz zer diozun, eta kirolaria bazara hobe, korri egin
behar baduzu. Urteetako margolan txukuna egin baduzu,
egon lasai, hainbat erretraturekin egin bezala une batetik
bestera ezaba dezakete eta. Herriak txukun uzteko grina ez
zaie falta batzuei.

Halako zereginetan ari direnek, beldurraren gortina jarri
nahi digutela dirudi, haiek nahi ez duten lekura so egin ez
dezagun. Gortinak zabaldu eta atzean dagoen errealtatea
ikus ez dezagun. Beste kontu bat da, gainerakook ikusme-
na ondo ote dugun, edo ez.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika!

Azken hilabetetan Usurbilgo Eusko
Alkartasunako kide ohiok elkar-
tzen eta elkarrizketa sakonean aritu gara
alderdiaren norabidearen inguruan.

Beharrezkoa ikusi dugu, une honetan,
Usurbilgo herriari egoeraren berri emate
eta bide batez esplikazio bat.

Gogoeta prozesu horren ondorioa
Usurbilgo Eusko Alkartasunaren desa-
gperena da.

Azkenaldi honetan, herritarrek,
Eusko Alkartasunarekiko duten pertzep-
zioa okertu duten erabaki estrategikoak
hartu dira. Bide-okertze politiko bat
eman da EA-n, aldaketa estrategiko bat
eman da "polo soberanista" delakoan
apustua eginaz, bere burua Ezker
Abertzalea deitzen dioten horiekin bat
eginaz. Aldaketa estrategiko hori gure
hautesleek ez dute ulertu eta gogor

Usurbilgo herriari

zigortu dute. Eusko Alkartasuna ezagu-
tezin bihurtu da bere hautesle kopuru
nagusia erantzat. Ezerk ez digu batzen
bere burua Ezker Abertzalea deitzen dio-
ten horiekin, eta sumingarria zaigu
alderdiaren zuzendaritzak gu fisikoki
erasotzera iritsi diren horiekin elkar-
strategia batera bideratzea.

Aldaketa estrategiko honek, gehi
barne demokrazia gutxitzeak, erabaki
zail hau hartzera eraman gaitu.

Hemendik aurrera lan gogorra dugu
egiteko: azken hauteskunde munizipale-
tan gure hautesleekin hartu genuen kon-
promisoari erantzuten jakingo duen
proiektu politikoa martxan jartzea. Gure
egitekoa egiten jarraituko dugu
Usurbilen alde eta herritarren mesede-
tan.

Eusko Alkartasunaren hasierako balo-

reak bizirik ditugu eta udal hauteskun-
deetako konpromisoak berresten ditugu.
Horregatik, hauteskunde haietan gure-
gan konfiantza jarri zutenei erabaki hau
uler dezaten eskatzen diegu. Batzuk uler-
tuko dute, beste batzuk ez; baina denei
eskatzen diegu konfiantza proiektu
berrian.

Aktiboki lan egingo dugu proiektu
politiko berri honetan, lidergo sozial eta
politikoa berreskuratzea helburu duena.
Gure konpromisoa berrikuntza politiko
baten eredu izan behar du, eta proiektu-
tua, euskal abertzaletasunaren giza-senti-
beratasun historikoa eta gaur egungo
sozialdemokraziaren baloreak lotzen
jakingo duena.

Usurbilgo Eusko Alkartasunaren afi-
liatu ohiak. 2009ko irailaren 11n.

Abian da berriz ere bus-taxia

Udalak eta Behemendik duela urtebete, nekazal ingurunea herri kaxkoarekin lotzeko martxan jarri zuten bus-taxia bidean dabil dagoeneko. Abuztuko oporraldiaren ondoren, pasa den irailaren 1az geroztik ohiko ibilbideari ekin dio.

Astelehenetik ostiralera, beti bezala bost aldiz osatuko du Kaxkoa, Kalezahar, Aginaga, Txokoalde, Urdaiaga, Santuenea, Zubieta edota Txikiardi lotuko dituen ibilbidea.

Ordutegia, berbera

Ordutegia ere, uda aurreko bera izango da.

Gogoan izan, zehaztuak dauden geltokietako batera joan ezin duenari,



NEKAZAL INGURUNEA KAXKOAREKIN
LOTZEKO JARRI ZEN MARTXAN
BUS-TAXI ZERBITZUA.

bus-taxia etxeraino gerturatuko zaio. Horretarako ordea, aldeztu aurretik gidariari (Maribel) deitu behar zaio, honako telefono zenbakira: 630 643 596. Bus-taxia doako garraio zerbitzua da, bereziki mugikortasun arazoak dituzten herritarrei zuzendutakoa.

Gida praktikoa,

16 urtetik beherakoei zuzendua

Aisia, dantza, kirola, musika, zerbitzuak... Nahi izanez gero, hasi berria den ikasturte honetan 16 urtetik beherako haur eta gazteek badute zeregina Buruntzaldean, bailarako sei udalek prestatu duten gidan ageri denez.

Bertan, Andoain, Astigarragan, Hernanin, Lasarte-Orian, Urnietan eta Usurbilen burutzen diren euskarazko jardueren eta zerbitzuen berri ematen da. Orain arte paperean argitaratu den gida, aurrerantzean buruntzaldea.org web orriaren kontsulta liteke, eguneratuta gainera.

Udalerrri bakoitzean antolatzen den jarduera edo eskaintzen den zerbitzuen inguruko xehetasunak agertzen dira gidan; hala nola, nori zuzendua dagoen, non eta noiz burutuko den, informazioa jasotzeko bideen berri ere ematen da. Gida kontsultatzeari



AISIA GIDAN, ANTOLATZEN DIREN
JARDUERAK EDO ESKAINTZEN DIREN
ZERBITZUAK BILTZEN DIRA.

buruzko gorabeherak bailarako gurasoei helaraziko zaizkie, diptiko baten bidez.

80 urte

bete dituztenen omenezko bazkaria

Gure Pakea elkarteko kideek gaurten 80 urte bete dituztenak zoriondu nahi dituzte. Bazkaria urriaren 4an izango da Atxega jauregian. Lehenago meza izango da eguerdiko 11:30ean.

Bazkarira joan nahi duenak, irailaren 25a baino lehen erosi behar du bazkarirako txartela. Gure Pakeak Artzabalen duen egoitzan eskura daiteke txartela, 35 euro ordaintzarekin batera. Edo Euskadiko Kutxan, kontu honetan ingresoa eginez:

3035 0140 31 1401018416.

Potxoenea eta konpostagunea, plenoan aztergai

Hirigintza alorreko bi neurri hartu ziren pasa den irailaren 11ko ezohiko osoko bilkuran udal ordezkariak eztabaidatu eta bozkatu zituzten gaietan. Batetik, konpostagune ekipamendu publikoak Atsobakar izeneko eremuan kokatzeko arau subsidiarioetan burutu beharreko aldaketa behin betikoz onartu zuten, erreklamazio epean aurkeztu diren bi alegazioak aintzat ez hartzarekin batera. Gobernu taldeak eta Aralarrek babestu zuten erabakia. Aldiz, EAJ-PNV eta EAko udal ordezkariak aurka bozkatu zuten.

Bestalde, Potxoenea eraikina ere ahotan hartu zuten. Eraikuntza ekipamendu publikora bideratu eta zabaltzea erabaki baitzuten, Usurbilgo Herrigunearen Babeserako Plan Bereziaren aldaketa behin betiko onartzea berretsi ostean. Gobernu taldearen proposamenaren aurka bozkatu zuten EAJ-PNV eta EAko udal ordezkariak. Aralarrek abstentziora jo zuten.

Euxebio Txapartegi harakina, jubilatuta berritan

“Oraingo gazteek gutxi jaten dute haragia”

Bertako okela saldu eta bezeroak kontent egotea, horixe izan da Euxebio Txapartegiren azken 33 urteotako ogibide nagusia. Baina jada, iraganeko kontua da hori. Kale Nagusiko harategia itxi berri du, jubilatuta egin delako. Bezero izan dituenentzat, esker hitzak baino ez ditu eta gustura ageri da, harategian burutu duen ibilbideaz.

NOAUA! Udan itxi duzue harategia. Zer dela eta?

Euxebio Txapartegi. Uztailaren 11n itxi genuen. Jubilatzeke gogoz nenbilen. Apirilean jubilatzen nintzen baina azkenean, itxiera apur bat luzatu nuen.

N. Ordezkorik bilatu al duzu?

E. T. Ez. Kale hau (Kale Nagusia) motz geratu da jada. Usurbilgo erdigunea gora joan da.

N. Urte mordoxka bat bai, harakin moduan?

E. T. 33 urte, 1976an ireki nuen. Michelingo greba handia izan zen garaian.

N. Ordura arte beste lanetan aritu zinen?

E. T. Artzetarrekin aritu nintzen, hamabi urtez. Eta Michelinen, hamalau urtez.

N. Nolatan erabakitzen duzu zeure negozio propioa zabaltzea?

E. T. Michelinen greba zela eta, hiru seme-alaba nituen... Orduan erabaki nuen hemen hastea. Enpresakoei esan nienean, hiru seme-alabekin zer egitera noan ba ote nekien galdetzen zidaten. Osasuna besterik ez nuela eskatzen erantzun nien, bestela ez nintzela ikaratu.

N. Zuretzat apustu handia behar zuen, harategia zabaltzea, une hartako egoera aintzakotzat hartuta?

E. T. Hemen bertan ere, esaten zida-



“33 URTEAN, EGUN BATEAN SOILIK EZ NAIZ LANEAN ARITU, ANAIA HIL ZELAKO”.

ten, arrisku handian sartzen ari nintzela. Baina 33 urtean egun batean soilik

ez naiz lanean aritu, anaia hil zitzaidalako.

“Beti tratatu izan dut bertako baserritarrekin”

NOAUA! Hornitzaileekin, inguruko baserritarrekin harreman zuzena izan duzu, ezta?

Euxebio Txapartegi. Beti. 40 urtean, beti tratatu izan dut bertako baserritarrekin. Azkenean haiengatik luzatu dut harategiaren itxiera. Haiekin ondo gelditu nahi, eta gustura.

N. Beti ahalegindu zara gertuko haragia saltzen. Bezeroek ere hala eskatuta?

E. T. Bai eta baserritarrek eskertzen dute.

N. Ezin kalkulatu zenbat hazi ote diren zuk salduko haragiaz?

E. T. Hemengo bezeroak izan ditut, denetarik. Baserritar asko, oraindik baserri onak banituen. Kalekoak ere. Autobusak harategi parean gelditzen zirenean, kanpotik Oriotik eta Donostiatik etortzen ziren. Autobus geltokiak mesede egiten zuen.

“Lan txarra da hau”

NOAUA! 33 urte hauetan, bezero asko izango zenituen. Okela kontsumitzeko ohiturari dagokionez, aldatarik antzeman al duzu?

Euxebio Txapartegi. Oraingo gazteek gutxi jaten dute haragia, lehengoek askoz gehiago. Denbora pasa genuen lehen, haragi gutxi edo batere jan gabe. Gero gehiegi jan dugu, baina oraingo gazteek gutxi. Egun elikagai asko dituzte. Aurreko batean taberna batera joan nintzen. Jendez lepo zegoen. Platera ugari zerbitzatzen ari ziren, baina haragia bat edo bestek bakarrik jaten ikusi nuen.

N. Aukera egon izan balitz, nahi izango ote zenuen inork zure lekukoa hartzea?

E. T. Bai, aukera egon bazen bai. Bi alaba ditut ikasitakoak. Gazteentzako lan txarra da hau. Hemen ordu asko geldirik egon beharra dago. Gainera seme-alaba denak lanean ari dira.

N. Herri merkataritzari buruzko diagnosis egin berri da Usurbilen. Zer ikuspegi duzu zuk aipatu gaiaren

inguruan?

E. T. Udalak zerbait egin du. Baina nik gaur egun ez nuke harategi bat zabalduko. Garai hartan aldiz, edozein izkinetan jarri eta aurrera jarraitzen zenuen. Lan egin behar zen, lan asko orduan.

N. Zer esango zenioke negozio berri bat irekitzera doanari?

E. T. Harategia behintzat ez irekitzeko. Egongo dira, bestelako aukerak ere.

HARAKINARENA

“Gaur egun,
ez nuke harategi bat
zabaltzeko ahalegina egingo”

N. Saltokia itxi arren, herri kirol kontuetan murgilduta jarraituko al duzu?

E. T. Ez dakit. Neu iristen naizeneraino, neure borondatea agertuko dut. Andatzpe elkarteak betidanik izan du



“JENDEAREKIN BUKAERA EMATEN ASMATU DUDALA USTE DUT”, EUXEBIO TXAPARTEGIREN HITZAK DIRA.

herri kirolak antolatzeko zeregina. Gauza asko egin dira hemen; harri handia mugitu da, idiekin eta gizonekin...

N. Harategiko lanaren hutsunea sumatuko al duzu?

E. T. Ez. Argi dut gainera. Harategian gustura hasi nintzen, gustura aritu naiz eta gustura utzi dut. Jendearekin bukaera ematen asmatu dudala uste dut, ahal zen neurrian behintzat.

“Behi eroen kontua, dirua ateratzeko sistema da hori”

NOAUA! Azken urteotako hegaztien gripe edota behi eroen kasuek zer modutan eragin dizute?

Euxebio Txapartegi. Asko. Baina hori guztia baino lehen, Bartzelona aldetik gibel txarra banatu zen hemen. Garai hartan, bertako baserriko haragia zela esaten bazenien bezeroei, eramaten zuten, bestela kanpokoak, ez.

Behi eroen kontua, dirua ateratzeko sistema da hori. Dena ez nuke esango, baina erdia baino gehiago bai.

N. Garai horretan, bezeroak tentuago nabari zenituen?

E. T. Bai. Gainera kartelak jartzera behartzen ziguten mostradorean. Haragia nongo baserrikoa edota zer

adinetakoa zen zehaztea alegia.

N. Izan al duzue produktu izarrik, gehiago saldu izan den gairik?

E. T. Denetik saldu izan dugu. Salmentarekin oso gustura egon naiz. Eta jendearekin ere, Usurbilen jende ona dago. Haiei, eskerrak eman besterik ez dut.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojindégja - Gozotegja

LABE-GOXO

KALITATERA
EUSKAL OKELA

ALKORTA AUTOZERBITZUA

CAVINE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO

Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

Frutak Barazkiak Etxeko produktuak Izoztuak

Greba egunekin aurrera jarraitzen dute Ingemarreko langileek

Ingemarreko hogeit hamar langile kaleratuak berronartzeko langileen batzordeak hilabete hasieran onartutako mobilizazio egutegia betetzen ari dira langileak. Eta hala jarraituko dute, duela astebete eskaini zuten prentsaurrekoan adierazi bezala, enpresako zuzendaritza taldeak jarrera aldatzen ez duen artean. Aste honen bururako, jada laugarren greba egunari begira egongo dira Ingemarreko beharginak. Bestalde, LAB sindikatuak herriko hainbat enpresatan langileak pairatzen ari diren egoera salatzen eskualde mailako manifestaldia deitu du ostiral honetarako. 19:30etan abiatuko da Mikel Laboa plaza paretik.

Uztailaren 30ean Ingemarreko 20 langile kaleratu zituztenetik langileen batzordeak eskari argia egin izan dio enpresako zuzendaritza taldeari; kaleratutako langileak berronartzea. Negoziaziorako prestutasuna agertzen jarraitzen badute ere, euren arabera, zuzendaritzak jarreraz aldatzen ez duen artean deituak dituzten mobilizazio ekitaldiak burutzen jarraituko dute.



AZKEN EGUN HAUETAN MOBILIZAZIOTAN DIRA INGEMARREKO LANGILEAK.

“Ez gaituzte kontuan hartzen”

Pasa den astean langileen batzordeak bertaratu ziren hedabideen aurrean jakinarazi zuten, negoziatzeko dei horren zain daude. Kaleratzeak zer modutan egin ziren ere agerian utzi nahi izan zuten; oportet zirela jakin zuten langile batzuk lanik gabe geratu zirela. Bakarren bat, bajaran zegoela. Lehen erabakia langileak kaleratzea izan ordez, alde aurretik beste erabaki batzuk har zitezkeela gogorarazi zuten, baina argi

zuten moduan, “ez gaituzte ezertarako aintzakotzat hartzen”.

Euren kezka iturria enpresaren etorkizuna da eta horrek ia zer modutan eragingo ote duen langileengan. Hogeit hamar langile kaleratu baitituzte, lan taldearen %9,50-a langile batzordeak igaro den asteko prentsaurrekoan zehaztu zuenez. Haiek gaineratu bezala, zuzendaritza lan taldea berregituratzea aztertzen eta orain artekoak langile kaleratu bakarrak ez direla izango mehatxatzen ari da.

Irailaren 25etik aurrera, greba mugagabea hasiko dute

Igaro den irailaren 8an Ingemarreko langileek euren lehen greba saioa burutu zuten, egun batzuk lehenago deitutako batzarrean aldeko 110 bozka, aurkako zero eta sei abstentziorekin onartu zuten mobilizazio egutegiari erantzunez. Lehen greba eguna izan zen hura, baina ez azkena, irailaren 15, 17, 22, 23 eta 24an Ingemarreko langileek ez baitute lanik egingo. Aipatu egunetan, auto karabanak, enpresa aurrean elkarretaratzeko edota manifestaldiak egingo dituzte. Beti ere egungo egoerak bere



IRAILAREN 8AN EGIN ZUTEN LEHEN GREBA INGEMARREKO LANGILEEK.

horretan jarraitzen duen artean. Nobedaderik ez bada, irailaren 25etik aurrera greba mugagabeari ekingo diote langileek.

Ostiralean manifestazioa,

LABek deituta

Egunotarako gainera, LAB sindikatuak manifestaziorako deia egin du. Hitzordua, ostiral honetan, irailaren 18an finkatua du. Manifestaldia frontoi atzeko Mikel Laboa plaza paretik abiatuko da, 19:30etik aurrera. Modu horretan, herriko hainbat enpresatan langileek bizi duten lan-egoera salatu nahi da. Kaleratzeak, soldatarik kobratu gabe lan egitea, erregulazio egoerak... Azken hilabeteotan eta egun, Usurbilgo hainbat enpresetan bizi duten panorama da.

Herriko dantzarien txanda

Igande honetan, irailak 20, Santueneko festetan arituko dira Dantza taldekoak. Ikasturte berri-rako matrikulazio kanpaina ere martxan dago. Beti bezala, Dantza Taldean izena eman nahi duenak Udarregi ikastolaren bidez egin dezake.

Santueneko saioa, igande honetako, eguerdiko 12:30ean hasiko da. Hala ere, dantzariak lehenago elkartuko dira, 11:00etan, Santueneko soziedade aurrean, saioa prestatzeko.

Arestian aipatu bezala, matrikulazio kanpaina ere martxan da. Entsegu orduak zehazteko bilera irailaren 25ean ostirala izango da, arratsaldeko 16:30ean Agerialdeko frontoian.



SANTUENEKO FESTETAN, IGANDE EGUERDIAN ARITUKO DIRA HERRIKO DANTZARIK.

Martxelentzat bertsoak

Gizon alaia eta gertukoa
Esku-zabal, bihotz bigun.
Langile fina ta hitzekoa,
Nun zabilta Martxel lagun?
Kale ixilek utzi digute
Auzoa triste ta ilun.
Utsuneari ihesi gabiltz,
Ezin sosegatu inun
Geure galderak geure barruan
Egiten digu oiartzun
Aldi berean zergatik zaude
Hain gertu eta hain urrun? (bis)

Baina guztia ez da gelditu
Teloi beltzaren atzean.
Zure irriparra txertatu degu
Hutsunearen ertzean.
Zinez gogoan zaitugu Martxel
Festa garaia heltzean.
Bizi zale ta lagun arteko
Izan zinenez funtsean.
Berriz taupada izango zera
Festa hauen bihotzean
Eta gurekin egongo zera
Irribarre bakoitzean. (bis)



APIRILAREN HASIERAN ZENDU ZEN BAINA
AUZOTARREK EZ DUTE BERE
IRRIBARREA AHAZTU NAHI.

Ekitaldiz betetako asteburua Santuenean

Irailak 18, ostirala

17:00 Txupinazoa eta txokolatada, jubilatuen tabernaren aurrealdean.
18:30 Buruhandiak.
19:00 Sardin-jana txarangarekin.
21:00 Musikarien afariak.
Ogitartekoak egongo dira karpan afaldu nahi duenarentzat.
00:00 Kontzertuak, Sexty Sexers, I Can't Explain. Dantzaldia, Trikihots.
Ondoren, gazte jokoak; txerri harrapaketa, globo gerra.

Irailak 19, larunbata

11:00-14:00 Haur jolasak haur parkean.
14:00 Haur bazkaria. Bakoitzak bere bazkaria eraman. Edaria eta postrea banatuko dira.
16:00 Mus txapelketa. Izen ematea: 15:30-16:00 artean.
16:00-19:00 Haur jolasak.
17:30 Txokolatada Tragoxka aurrean.
19:00 Buruhandiak.
20:30 Kantu afaria, Josunerekin.
00:00 DJ Larra goizaldera arte.

Irailak 20, igandea

10:30 Baxurde Txikik antolatutako krossa pasako da auzotik. 12:00 Toka. 12:30 Herriko dantzariak plazan. Ondoren, hamaiketako jubilatuen tabernaren aurrealdean, jubilatuta eta auzoko kultur elkarteak antolatuta.
14:00 Herri bazkaria, txaranga.
17:00 Benito Rosen moto eta txirrinda erakustaldia. Ondoren, buruhandiak.
19:30 Piper dastaketa.
21:00 Traka eta suzko zezena.



Zurea bai zortea!, etxetik gertu euskara ikasteko aukera duzu

Buruntzaldeko euskaltegiak matrikulazio kanpaina abiatu dute eta aurten lehenengo aldiz ikastaroen eskaintza bateratua prestatu dute. Gainera, eskualdeko euskaltegien eskaintza bateratua eta bestelako informazio interesgarri ugari euskara.buruntzaldea.org web gunean zintzilikatu dute Euskaltegiak izeneko atal berrian.

Ikasturte berria ate joka dugu eta inoiz berandu ez denez, euskara ikasteko edo euskara maila hobetzeko garaia heldu da Buruntzaldera. Ohikoa da urte berriarekin, ikasturte berria hastean edo oporretatik itzultzean asmo berriei eustea, eta oraingoan euskara ikastea edo euskara maila hobetzea izango da, bat baino gehiagorentzat, ikasturte berriko erronka. Horregatik Buruntzaldeko euskaltegiak matrikulazio kanpaina jarri dute martxan Zurea bai zortea! lelopean.

Etxetik gertu euskara ikasteko aukera

Buruntzaldeko euskaltegiak estreina-koz egin dute matrikulazio kanpaina eskualde mailan. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilek euren herrietan euskaltegiak izan arren eta bakoitzak bere matrikulazio kanpaina egin arren, aurtengoan euskaltegi guztiek elkarrekin egin dute kanpaina ikastaro eskaintza zabalagoa eskaini ahal izateko, ordutegiei eta mailai dagokionez.

Hala, beste herri bateko eskaintza interesatuaren beharretara hobe egokituz gero, bertan matrikula egiteko aukera izango du inongo arazorik gabe. Hau da,



PASA DEN OSTIRALEAN EGIN ZEN "ZUREA BAI ZORTEA!" KANPAINAREN AURKEZPENA.

Lasarte-Oriako euskara ikasleak ez du inongo arazorik izango Usurbilgo euskaltegiko ikastaro batean matrikulatzeko.

Gainera, maiatzetik martxan dagoen autobus zerbitzuari esker ez dago aitzakiarik eskualdean barrena mugitzeko. Ordutegi zabala eta bi linea, Astigarraga-Usurbil eta Urnieta-Usurbil, eskaintzen ditu zerbitzuak (ikusitako ordutegia kirolak.buruntzaldea.org web gunean). Lehenengo autobus zerbitzuak 07:00ak inguruan hasten dira eta azkenak berriz, 22:00ak inguruan igarotzen dira herriz herri. Oso maiz igarotzen direnez,

eskualdeko euskaltegiak ordutegiak bateragarriak izango dira.

2009-2010 ikasturtean guztien beharretara egokitutako ikastaroak eskainiko dituzte eskualdeko euskaltegiak, bai ordutegiari dagokionez, baita edukiari dagokionez ere. Beraz, ikaslearen beharretara edozein direla ere, ziur badirela behar horietara egokitutako ikastaroak.

Ikastaro eskaintza zabala

Eskualdeko eskaintza oso zabala da, eta maila guztietako ikastaroak eskaintzen dituzte bai AEKko euskaltegietan baita Udal Euskaltegietan ere.

	Andoain	Astigarraga	Hernani	Lasarte-Oria	Usurbil
	AEK	AEK	AEK *U. Eusk.	AEK *U. Eusk.	AEK
1A maila	✓	✓	✓	✓	✓
1B maila	✓	✓	✓	✓	✓
2 maila	✓	✓	✓	✓	✓
3 maila (EGA)	✓	✓	✓	✓	
Autoikaskuntza	✓	✓	✓	✓	
Mintzapraktika	✓	✓	✓		
Ikastaro bereziak	✓	✓	✓		



Informazio guztia euskara.buruntzaldea.org web gunean

Ikastaroen bilatzailea

Eskualdeko euskaltegiek ikasturte berrirako prestatu duten eskaintza zabala euskara.buruntzaldea.org web guneko Euskaltegiak atal berrian kontsulta daiteke, herriaren edota euskara mailaren arabera. Ikastaroaren zehaztasun guztiak eta euskaltegi antolatzailearen informazio orokorra bertan aurkituko duzue. Horrez gain, erabiltzaileak bere beharretara egokitzen den ikastaro horretarako matrikulazio eskaera egin dezake web guneatik bertatik eta eskaera dagokion euskaltegiak jasoko du.

Aurrez aipatutako udalen diru laguntzen berri ere bertan jaso da.

Automailaketa

Bestalde, euskaltegira joan aurretik norberaren euskara maila ezagutzeko aukera eskaintzen du euskara.buruntzaldea.org web guneak. "Automailaketa" atalean maila bakoitzari dagozkion testak zintzilikatu dira. Test horiek egin ostean, erabiltzaileak

euskalduntze prozesuan duen gutxi gorabeherako maila ezagutuko du. Erreferentzia hori gutxi gorabeherakoa izango da, eta euskaltegian ikastaroaren batean izena eman nahi izanez gero, mailaketa zehatzagoa egin beharko da bertan. Euskara maila bakoitzak dituen ezaugarrien eta ziurtagirien arteko baliokidetzen inguruko informazioa web gunean bertan kontsulta daiteke.

Europako Erreferentzia Markoa

Euskaltegi guztiak Europako Erreferentzia Markoaren pean ari dira lanean eta mailen eta gaitasun agirien erreferentziak berberak dira. Beraz, ez dago arazorik, taldea izan eta hala komeni izanez gero, ikas-prozesua euskaltegi batean hasi eta hurrengo ikasturtean beste batean jarraitzeko.

Baliokidetzeta-sistema horren inguruko informazio gehiago euskara.buruntzaldea.org web gunean aurkituko duzu.

Lotura interesgarriak:

Buruntzaldeko Euskara Zerbitzuen web gunea: euskara.buruntzaldea.org
AEK, Euskalduntze eta Alfabetatze Koordinadora: www.aek.org

Udal Euskaltegiak: www.udaleuskaltegiak.net

HABE, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea: www.habe.euskadi.net

IKA Euskaltegiak: www.ikanet.net

Euskara ikasteko diru-laguntzak

Euskara ikasi edo maila hobetu nahi dutenek, Buruntzaldeko udalen diru-laguntza izango dute. Diru-laguntza hauek jasotzeko baldintzak eta emateko irizpideak udal bakoitzaren araberakoak izango dira. Zenbait kasutan matrikularen kostuaren %100 jaso dezakete euskara ikasleek.

Zurea bai zortea!

¡Estás de suerte!

Ez dakizu euskaraz eta (hasi) nahi al duzu?
Duzun maila hobetu nahi duzu?
Zure zerbitzua euskaraz eman nahi duzu?

2009/2010 ikasturtea
matrikulatu
Buruntzaldeko euskaltegietan!

¿No sabes euskera y lo gustaría aprender?
¿Necesitas mejorar tu nivel?
¿Quieres ofrecer tu servicio en euskera?

curso 2009/2010
matricúlate
en los euskaltegis de Buruntzaldea

euskara.buruntzaldea.org

%80tik gora birziklatzen da

Atez ateko bilketari lotutako lehen bost hilabeteetako datuak ezagutarazi berri dituzte, hondakin zati bakoitza tratatu duten enpresa desberdinek. Bilakaera ezin baikorragoa da, Usurbilgo birziklatze mailak %80tik gorakoa izaten jarraitzen baitu. Kantitateari bakarrik ez, kalitateari begira ere herritarrek zegokien lana txukun egin dutela ondoriozta liteke.

NOAUA! Jada atez ateko bilketa sistemak duen bilakaerari buruz hitz egin liteke. Pozik egoteko moduko datuak kaleratu dira?

Xabier Mikel Errekondo. Guk jakin bagenekien garai bateko %20 pasatxoko birziklatze maila, atez atekoa martxan jarrita, berehala nabarmenduko genuela eragina. Oso nabarmena da egindako ahalegina eta lortutako emaitza. Uztailera arte, %80a gainditu dugu birziklatze-maila horretan. Beraz, zaborteigira oraindik ere hondakin gutxiago bideratzen dugu.

XABIER MIKEL ERREKONDO

“Gu ez gara konformatzen %80arekin. Gure helburua ehuneko ehunera ailegatzea da”

Gaur egun, atez atekoarekin bakarrik lortu dira emaitza hauek. Zer esanik ez, zenbakiez gain bildutako horren kalitatea. Eta horrekin bai dauzkagula benetan harrituta. Paper eta kartoiaren kasuan, ia ezer egin beharrik gabe martxan jar dezakete euren birziklatze prozesua eta berdin plastikoarekin, kalitate handikoa baita.

N. Herritarrek euren iritzia emateko txanda da orain. Inkesta burutzeko asmoa baituzue?

Materiala	Api.-Uzt. 08	Api.-Uzt. 09
Organikoa	0,00%	25,85%
Autokon postajea	0,32%	8,78%
Beira	9,01%	15,83%
Papera, kartoia	9,64%	13,14%
Ontziak	3,93%	8,21%
Besteak	5,53%	10,51%
Erreusa	71,57%	17,67%
Guztira, gaika	28,43%	82,33%

%80TIK GORA BIRZIKLATZEN DA USURBILEN ATEZ ATEKO SISTEMAREKIN. TAULA HONETAN ALDERATUTA DAUDE 2008 ETA 2009KO DATUAK, APIRILA-UZTAILEKO BILKETAK (INDUSTRIAGUNEETAKO EMAITZAK EZ DIRA DATU HAUETAN ISLATZEN).

X.M.E. Herritarren pentsaera eza-gutu egin nahi dugu eta horrekin lotuta, asebetetze-mailako inkesta bat bideratuko dugu herrian, irailaren 21etik aurrera. Hainbat etxebizitzetara egingo diren deien bidez, herritarrron iritzia jakin ahal izango dugu. Herritargo guztiarengana iritsi eta euren iritzia jaso nahi da; auzoak, adina edota sexua aintzakotzat hartuta. Lagin horrek informazio asko emango digu eta informazio hori herritarren artean banatu ahal izango dugu.

N. Zer beste urrats emateko asmoa duzue aurrerantzean?

X. M. E. Gu ez gara konformatzen %80arekin. Zenbakiak potoloak dira, zorientzen gaituzte baina badago zertan lan egina. Zenbaki hau hobetu nahi dugu. Gure helburua, hondakinak zero da, ehuneko ehuna birziklatzera ailegatzea. Behar den lekuan, informazioa areagotuko dugu. Urrian poligonoekin lanean hasi nahi dugu.

Guk uste dugu, jendea geroz eta kontzientziatuago dagoela, lan gutxi

egin beharko dugula zorionez.

N. Usurbilek hasi du atez ateko bidea gure inguruan. Bide beretik joko dute udalerrri gehiagok?

X. M. E. Hernanik eta Oiartzunek aurrera egiteko prestutasuna dute.

Papera xeha daiteke Sutegin

Hondakinaren kudeaketari lotuta iaz antolatu zen parte hartze prozesuko bileratan, besteak beste, paperarentzat xehegailua jartzea proposatzen zen (papera trituratze makina). Udalak Sutegiko udal liburutegi sarreran jarri berri du. Papera bakarrik xeha liteke bertan, kultur etxea irekita dagoen ordutegiaren barruan. Edozein argibide behar izanez gero, liburutegira edo atez atekoari buruzko informazio bulegora jo liteke.

Kantu Taldeen Topaketa antolatu dute Gernikan

Urriaren 3an, Gernikan ospatuko den Euskal Jaiaren barruan, "Kantu Taldeen topaketa" antolatu dute. Herrietako kantu taldeei bertan parte hartzeko deia egin zaie. Usurbilgo taldeko kideak bidaia antolatzen ari dira. Izena emateko epea irailaren 24an amaituko da.

"Usurbilgo kantu taldetik deialdia luzatzen diogu bertara joan nahi duen herritar orori izena eman dezan. Goizean kantu jiran ibiliko gara eta eguerdian herri bazkaria izango da. Izena emateko azken eguna irailaren 24a izango da. Irteera honen inguruko zehaztasunak (irteera ordua, lekua...)



KANTU TALDEKOAK, JAIEAN
ARITU ZIREN KANTARI. IRUDIAN,
ARTZABALEN KANPOALDEAN.

NOAUA!n argitaratuko ditugu.

Izena emateko, nahiz xehetasun gehiago jakiteko: 657 73 95 23 / 658 72 80 18 telefono zenbakietan".

"Hitzen lihoa iruten" saiorako sarrerak Txiribogan daude salgai

Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak, Juan Mari Beltranen musika taldeak eta Xiberuko kantariak. Horiak dira "Hitzen lihoa iruten" ikuskizunaren osagai nagusiak. Larunbat honetarako Nafartarrak taldeak antolatu duen saioa.

"Euskal Herrian egiten den kultura-aren ispilu izan nahi du eta era berean beraien uztarketa ere bai.

Nahasketaren bidez sor daitekeen emaitza nolakoa izango den ikusi nahi dugu", hala diote Nafartarrak taldeko kideek.

Bi orduko iraupena

Bi orduko iraupena izango du eta sarrerak, alde aurretik erosita, 8 eurotan jarri dira salgai (Usurbilgo Txiriboga tabernan, Lasarteko Jalgin eta Orioko Kolon Txikin). Egunean bertan erosiz gero, 10 euro.

Mikel Atxaga zendu da, Usurbilen apaiz aritutakoa

Mikel Atxaga Fernandez 1932ko abuztuaren 25ean jaio zen Urnietan.

Saturrarango apaiztegia egin zituen ikasketak. Gero, Gasteizen eta Donostian Filosofia eta Teologia ikasi zituen. Lourdesen eman zuen lehen meza, 1958ko ekainaren 1ean. Handik hiru egunera, ekainaren 4an, Urnietan eman zuen meza berria. Aizarnako apaiza hamaika urtez izan ondoren 1969ko abenduan Usurbilera aldatu zen, aldi berean *sindikatu*an (Alkartasuna kooperatiban) lan egiten zuen. 1974an apaiz izateari utzi eta euskal kazetaritzari ekin zion arte, buru-belarri.

Ikastolako sustatzailea

Euskararen Aholku Batzordeko kide izateaz gain, Lasarte-Oriako Landaberri eta Usurbilgo Udarregi ikastolen bultzatzaileetakoa izan zen.

Urnietako San Migel parrokia jendez gainezka zela, azken agurra eman zioten larunbatean.



MIKEL ATXAGA KAZETARI ETA IDAZLE
LANENGATIK NABARMENDUA IZAN DA.

Kima
MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



**Usurbil
Autoak, S.C.L.**
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,
Aitezarra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79

Igandean jokatu da II. Baxurde Krossa

Azken prestaketa egunak izango dira antolatzaileen-entzatzat, azken entrenamendu saioak berriz igande honetan, irailak 20, Baxurde Krossaren bigarren edizioan parte hartuko duten lasterkari-entzatzat. Goizeko 10:30ean finkatua dago hitzordua. Ibilbidea iazko bera izango da. Mikel Laboa plaza parean, frontoi atzealdean hasi eta bukatuko da, 10'5 kilometrotako luzera izango duen ibilbidea.

Baxurde Txiki Usurbilgo triatloi taldeko kideek antolatu dute igande honetako krossa. Kaxkoa, Santuenea, Zubieta edota Kalezar lotuko dituen 10,5 kilometrotako ibilbidea osatu beharko dute lasterkariak, goizeko 10:30etik aurrera.

Izen-ematea zabalik

Izen ematea zabaldu dute, herri-krossa.com web orrialdean. 7 euro aldeztatik, edo 10 euro, eguneko bertan izena ematen dutenentzatzat.

Mikel Laboa plazatik irten

Lasterkariak Mikel Laboa plaza pareatik irtengo dira. Plaza horretan bertan, frontoi atzean kokatu da Baxurde Krosseko helmuga.



AURTENGOA BIGARREN EDIZIOA
IZANGO DA. ARGAZKIAN, IAZKO
SARI BANAKETA.

Kiroldegiko ikastaroetan izena emateko epea ireki da

Sasoi betean izateko, Kirol Patronatutik denboraldi berri-rako antolatu diren kirol ikastaroen artean, bada non aukeratua. Lehorrean nahiz igerilekuan, haur, heldu eta gazteentzatzat, jarduera desberdinak prestatu dituzte aste tartetarako. Bestalde, 2009-2010 kirol urtean aholkularitza zerbitzuak ere bere horretan jarraituko du. Izen ematea zabaldu da jada, honako ikastarotarako.

-Lehorreko ikastaroak helduentzatzat: spinning, mantentze-gimnasia, aerobik, aholkularitza, GAP eta luzaketak, pilates, power dunbell, 3.adina.



SPINNING, GERO ETA ZALETU GEHIAGO
DITUEN IKASTAROA.

-Igerilekuko ikastaroak: haurtxoak (6 hilabete-bi urte), uretara moldatzea (3-4 urte, 5-7 urte), ur ludotekak (3-7 urte), igeriketara eskola (8-14 urte), hastapena (helduentzatzat), hobekuntza (helduentzatzat), igeriketara gidatua (helduentzatzat).

Oiاردoko kafetegiaren inaugurazioa

Berriki, Rotterdamen (Holanda) jokatu da Munduko Judo Txapelketan, Munduko Txapelkunorde postua eskuratu du Oiana Blanco Usurbil judo klubeko kideak. Ostegun honetan, irailak 17, azken orduko aldaketarik ez bada behintzat, Kirol Patronatuak antolatuta 19:00etik aurrera harrera egingo zaio Oiardo kiroldegian. Bide batez, ondoren, igaro den abuztuaren 6an ireki zen kafetegi berriaren inaugurazio ekitaldi ofiziala burutu da. Herriko kirol taldeei eta kiroldegiko erabiltzaileei ekitaldian parte hartzeko gonbita luzatzen die Patronatuak.

Futbol Eskolan izena emateko garaia da

Aurreko astean iragarri genuen bezala, Futbol Eskola jarri nahi da martxan Usurbilen. Astero ordubeteko saioak egingo dira eta hilabetean behin partidak jokatzeko aukera izango da. Hala dio Usurbil FT taldeak igorri digun idatziak. Izena emateko epea aste honetan amaituko da.

“Datorren ikasturte honetan, Usurbil FTk, futbol eskola bat martxan jartzeko asmoa du. Nahiz eta urteren batean saia-keraren bat egin den egitasmo hau aurrera eramateko, gure herrian ez du finkatzerik lortu. Orain, klubaren eta herriaren beharrak eta nahiak asetzeko asmoz, berriz ere, eskaintza honekin gatoz.

Astero ordubeteko saioak buruko dira eta hilabetean behin partidak jokatzeko aukera izango da (igande goizetan). 1998, 1999, 2000 eta 2001 urteetan jaiotako haurrei dago zuzendua; neskak zein mutilak.

Eskola Kirolaren egituratik kanpo kokatzen dira Futbol Eskolak; hala ere, Eskola Kiroleko ordutegi ezberdinak ahal den neurrian errespetatzen saiatu behar dugu. Horregatik, hasiera batean eta izen emate kopurua ezagutu arte, entrenamendu saioak honela banatuko lirateke:

- 1998 eta 1999 urteetan jaiotakoak; ostegunetan, 17:30etik 19:00etara (aldatu eta prestatzeko denbora barne).
- 2000 eta 2001 urteetan jaiotakoak;



ENTRENAMENDUETARAKO MATERIALA
JASOKO DUTE IZENA EMATEN DUTENEK.

ostiraletan, 17:30etik 19:00etara (aldatu eta prestatzeko denbora barne).

Futbol Eskolak 150 euroko kuota bat izango du eta ordaintzeko formula ezberdinak egongo dira; aldi batean, bi alditan edo hiru alditan. Kuota honen barnean, saioa bera, entrenatzaileak, materiala eta kirolari bakoitzarentzako entrenamenduko arropa sartzen dira.

Horretaz gain, Realeko instalakuntzeta-
tara bisita bat egingo da monitoreekin, Realaren entrenamendu bat ikusteko eta Realaren partidaren batera joateko aukera ere izango da.

Izen-ematea Haranen

Izen-emateak, klubak Harane futbol zelaian duen bulegoan egin daitezke irailaren 9tik 18ra (asteburuetan izan ezik); arratsaldeko 18:30etik 20:00etara. Informazio gehiago nahi izanez gero, ordutegi horretan pasa zaitezke bulegotik edo ordutegi horren barruan telefono honetara deitu: 943 369 515”.

Aginagako Paleta Goma Txapelketa

IRAILAREN 10EKO EMAITZAK
M. Galarraga-Aritz Urdanpilleta 25
Xabier Santxo-Iban Arruti 13

Imanol Esnaola-Xabier Errasti 25
Josu Arruti-Jon Olaizola 16

Unai Loidi-Iñaki Errekondo 25
Aritz Aranburu-Josu Ostolaza 11

Igor Alkorta-Eneko Arregi 25
Unai Latallade-Eneko Harreguy 19

IRAILAK 17 OSTEGUNA, 18:00
M.Galarraga-Aritz Urdanpilleta
Igor Alkorta-Eneko Arregi

Imanol Esnaola-Xabier Errasti
Labaian aita semeak

Unai Loidi-Haritz Harreguy
Enrike Huizi-Haritz Zubiaur

Xabier Santxo-Iban Arruti
Unai Latallade-Eneko Harreguy

Yoga ikastaroa, Santuenea elkartean

Yoga ikastaroa prestatzen hasi dira Santuenean. Interesdunek bi ordutegi izango dituzte aukeran: goizez, 9:30-11:00 artean eta iluntzetan, 20:30-22:00 artean.

Asteazkenetan, 19:30etik 21:00etara beste talde bat osatu nahi da. Kasu honetan, haurrekin, haur eta gurasoekin edota haurdun dauden emakumezkoekin. Informazio gehiago: 695 774 951 (Mari Karmen) 670 090 262 (Irene).



Agenda!**Irailak 18 ostirala**

- Mikel Laboa plazatik abiatuta, 19:30ean manifestazioa, LABek deituta.

Irailak 19 larunbata

- "Hitzzen lihoa iruten", ikuskizuna. Sutegin, 19:00etan.

Irailak 18-20

- Santueneko festak (ikus 9 or.).

Irailak 25 ostirala

- "Grease" antzezlan, 22:00etan Sutegin. Antolatzaileak: Txerriki, Udala.

Irailak 26 larunbata

- Aurora Parra kantariaren kontzertua, 19:00etan Sutegin.

Irailak 30 asteazkena

- Hitzaldia, Salbatore elizako organoa. 20:00etan parrokiaren bertan.

Eguneko goardiako farmaziak**Irailak 17, osteguna**

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Irailak 18, ostirala

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Irailak 19, larunbata

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Irailak 20, igandea

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Irailak 21, astelehena

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 22, asteartea

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Irailak 23, asteazkena

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Irailak 24, osteguna

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Irailak 25, ostirala

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Irailak 26, larunbata

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Irailak 27, igandea

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Castilla Farmazia (22:00-09:00), Urbietakalea, 7 Hernani 943 552 941

*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Einean guraso eskolak prest du ikastaro eskaintza

Udalarekin batera, Einean Guraso Eskolak, beste behin, urritik aurrera abian jarriko den ikastaro sorta antolatu du. Dantza, sukaldaritza, masa-jea... Denetariko alorrak jorratuko dituzte aurtengo ikastaroek. Izena emateko egun bakarra izango da, irailaren 25ean hain zuzen.

Laboreak

Edukia: bolilloak, punto cruz, gantxilloa...

Iraupena: urritik ekainera, astean behin, bi orduz.

Saloi dantzak

Edukia: Indi hoop, salsa, merenge, tango, rock...

Iraupena: urritik ekainera, astean behin, bi orduz.

Yoga

Edukia: luzaketak, arnasketak, lasaitzeak...

Iraupena: urritik ekainera bitartean, astean behin, ordu eta erdiz.

Memoria lantzen

Iraupena: urrian hasita, hamabi saio, astean behin ordubetez.

Sukaldaritza

Iraupena: urrian hasita, sei saio astean behin ordu eta erdiz.



URRIAN HASIKO DA SUKALDARITZA

IKASTARDA.

Bitxigintza

Iraupena: urritik ekainera, astean behin, bi orduz.

Eskulanak, pintura, errestiturazioa

Edukia: oleo, akuarela, pastela, telaren gaineko pintura...

Iraupena: urritik ekainera bitartean, astean behin, bi orduz.

Sabel dantza

Iraupena: urritik ekainera, astean behin, ordu eta erdiz.

Masajea

Iraupena: lau hilabete, astean behin, bi orduz.

Izen ematea, irailak 25 ostirala

Tokia: Txaramunto, 1 (AEKko egoitzan, Zumarte ondoan).

Ordutegia: 10:00-11:00/17:00-19:00. Tf: 615 006 535 (17:00-19:00).

Irailak 23, Zirriborro Tailerrean matrikulatzeko eguna

Ikasturtea hasi berria den honetan, pintura eta eskulanetan trebatu nahi duenak, Zirriborro Tailerretan izen eman besterik ez du. Haur zein helduentzako ikastaro bana antolatu dute. Gaztetxoena, astean bi egunetan izango da, ordu eta erdiko pare bat saio, arratsaldean astelehenetik ostegunera 16:45-18:15 artean. Helduei

zuzendutakoa aldiz, astean bi orduko saio bat izango da. Goizetan, 9:00-11:00 artean eta ostegunetan, 14:30-16:30 artean. Matrikulazio eguna, irailaren 23a izango da, 18:30etan, baina leku berri batean. Tokiz aldatu baitira Zirriborrokoak. Aurrerantzean, Etxealdia jaisteko San Esteban kalean kokatuko da euren egoitza.

ETXEBIZITZA

- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetako egiteko aukera asko. 135.500 euro. 671417240.
- Gela argitsu bat alokairuan hartuko nuke. Tlf: 656 799 481.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berriua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna... eta trasteroerakin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Mendiko terenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Motorra salgai. Peugeot Speedfight 3, 50 c.c. 2009ko maiatzekoa. Estrenatu gabe eta matrikulatu gabe. 1.800 euro. 655724125.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. Interesatuak deitu 943361265.
- Peugeot 307a salgai. XS 2.0 HDI bertsioa. 90 cv, 5 ate. 2002ko maiatzean matrikulatua, 149000 km ditu. Oso egoera onean dago. Korrea eta alternadore berriak ditu. Gris metalizatua, Parrot markako telefonorako esku-librearekin. 6000 euro negoziagarriak. 685725639.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616296027.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai.

- 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 943 368 574.
- Emakumea interna moduan lan egiteko eskaintzen da. 608 098 941.
- Neska arduratsua etxeko lanak, haurrak zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. 699207750
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendi edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest

nago. 616 376 591.

- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Abuztuaren 9an, Elizan ingurutik San Inazio kale aldera urrezko eraztun (selloa) bat galdu genuen, MA jartzen duelarik. 657 71 13 35.
- Poltsa bat galdu da haurren arropa barruan zuela, Laurok kanpoan. Topatu baduzu, deitu mesedez: 943 373 117.
- Informatikoa naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero, deitu: Oskar: 609 46 87 59 / oskarsm@hotmail.com
- Maiatzak 8an Kodak markako kamara digital bat galdu genuen Kaxkoan. 678177129
- Ezkontzatzen abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzeko bi DVDrekin aurkitu dugu. 656774127.
- Frantseseko klaseak ematen ditut Usurbilen. Astelehen eta asteartetan. Klaseak maiatzean hasita daude baina oraindik plazak daude. Informazio gehiago Laurok liburudendan.
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Olatz!

Irailaren 22an 6 urte egiten dituzu. Zorionak eta marrubizko muxuak berrakada handi batekin Maider, amatxo eta aitatxoren partez.



Zorionak Unax!

Irailaren 11n, 7 urte beteko dituzu. Merendola batekin ospatu beharko dugu, ezta? Muxu potolo bat, Oihan, June, Anje eta Aratzen partez.



Zorionak Oihan!

Bost urte horiek ospatzeko bixkotxo goxo goxoa jango dugu, ezta?

Muxu bat Unax, June, Anje eta Aratzen partez.



HILDAKOAK

Jose Lasheras Munarriz
Irailaren 10ean, 82 urte



German Plaza Tendero
Irailaren 8an, 61 urte

JAIOTZAK

Uxue eta Manex Aierbe Arrue, uztailak 15.

Alain Harreguy Izagirre, uztailak 19.

Leo Rodriguez Sanz, uztailak 29.

Olantz Pikabea Urruzmendi, uztailak 30.

Iker Pagola Begiristain, uztailak 31.

Ekaitz Errazkin De Almeida, uztailak 31.

Xabat Jauregi Salaberria, abuztuak 5.

Araitx Oiartzabal Udabe, abuztuak 6.

Araia Zubizarreta Cutillas, abuztuak 8.

Ane Martinez Herreras, abuztuak 19.

Nora Huizi Jauregi, abuztuak 19.

Mikel Alustiza Erauskin, abuztuak 21.

Gabrielle Fernandez Yurrita, abuztuak 25.

Oihan De La Cruz Brea, abuztuak 29.

Asier eta Ainhoa Calderon Saenz, irailak 6.



Ondo pasa Jaietan!

*Errotaxetik auzurdan
jarraitze modian!*

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31



SAGARDOTEGIA

saltxipi 
jatetxea



Beriko janaria, zatoz Donostira!

Ategorrietako gaitzarra zaharra, 3

20.013 Donostia

Telefonoa 943.323.310

www.saltxipi.com

Batzuetan,
biderik laburrena
da onena



...garena ikasteko!

ikasi euskara
eman izena **aek-n**

Azterketo ofizialak eta titulu homologatuak www.aek.org

euskara
zure sekretua

usurbil

ETUMETA EUSKALTEGIA

Kale Nagusia, 45 behe. 20170 USURBIL

943 37 20 01

Udalaren diru laguntzaz

PLAZA MUGATUAK





Ofizioen Gida



URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

943 367 264
649 435 475
649 435 476

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

☎ 663 08 76 71
☎ 943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Fax: 943 24 34 80
Ataldu pol. ataldu. 28
20170 - USURBIL

Josue
Igeltseritza

☎ 606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Errazkin S.L.

igeltseritza orokorra
943 372 679 eta 649 435 470

kale nagusia 47, behea A

Jose Aizpurua Unanue

teillatuak eta fatxadak

943 69 68 52
620 80 01 86

Obaba kalea 29, Asteasu



LATAILLADE

ITURGINTZA

Gasa, berogintza,
klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

Bainu eta sukalde
erreformak, gasa,
berokuntza

Josexo Ikatzeta

687 951 225

**JOSEBA
ARANGUREN**

ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12

Javier Orbegozo

GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3.esk



izagirreletrizitatea@hotmail.com

izAgirre

Elektrizitatea

Apdo. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87

Goiz Argi etxea nº 37
Kale Zahar Auzoa



Antonio URRUZOLA

Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510

Asteasuain Industrialdea, 3

BEREZIARTUA S.L.

egurra eta
egur-aluminiozko
leihok-eskailerak

Aginaga 943 371 571

BARRENETXE

Salsamendi Arregi, Imanol

ARROZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



MARGOAK - PAPERAK

FERNANDO PINTORAK

ENPAPELAKETAK eta
PINTURAK OROKORREAN

nagusia, 1 TEL: 943 38 60 19



PLAKODUR

PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78